



2021/09/30EKO UDALBATZAREN OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

Eguna: 2021/09/30
Hasiera ordua: 19:00
Amaiera ordua: 20:20

Bertaratuak:

Lehendakaria:

Lierni Altuna Ugarte –alkatea- (EH BILDU)

Zinegotziak:

EH BILDU UDAL TALDEA:

Maria Cristina Etxenausia Irure

Oihana Ameskoa Perez

Gorka Astondoa Altuna

Santiago Balantzategi Beitia

Ana Maria Martiarena Arregi

Iban Herrarte Arana

EAJ/PNV UDAL TALDEA:

Juan Antonio Peña Orobengoa

Pedro Elosegui González de Gamarra

Ez bertaratuak:

- . -

Idazkaria:

Bittor Agirreurreta Murgia

Aramaion (Ibarran), Udaletxeko bilkura aretoan, goian aipatutako egun eta ordua denean, lehenengo deialdian goian aipatzen diren zinegotzi jaun andreak bildu dira Udal Plenoaren ohiko bilkura burutzeko objektuaz, Lierni Altuna Ugarte Alkate-Lehendakaria Lehendakari dela. Bilkura honetara Udalaren idazkari-kontuhartzailea, Bittor Agirreurreta Murgia, bertaratu da.

Lehendakariak, quoruma dagoela egiaztatuta, hasiera eman dio bilkurari eta aztergaien zerrendan jasotako gaiak jorratzeari ekin dio Udalbatzak:



AURKIBIDEA

1. ONARTZEA, BADAGOKIO, AURREKO BILKURAKO AKTA.	3
2. DEKRETUEN BERRI EMATEA.	3
3. ARAMAIOKO BAKE EPAILEA ETA HAREN ORDEZKOAREN IZENDAPEN PROPOSAMENA EGITEA.	3
4. ALKATEA ESKUORDETZEA 2016JESK0004 ESPEDIENTEA BURUTZEKO SINATU BEHARREKO DOKUMENTUAK ETA EGOKI DIREN JARDUNBIDEAK AURRERA ERAMATEKO.	3
5. LANPOSTU ZERRENDAN AGUAZIL LANPOSTUAREN IZEN ALDAKETA.	4
6. ONARTZEA, BADAGOKIO, HASIERAKO ONARPENA EMATEA 2022 URTERAKO ORDENANTZA FISKALEN ALDAKETARI.	5
7. ARAMAIOKO KIROLDEGIA ERABERRITZEKO ETA HANDITZEKO OBREN EXEKUZIO PROIEKTUA ONARTZEA.	7
8. JABARI PUBLIKO HIDRAULIKOAN DIREN IBAI-IBILGU ETA ERTZETAN ELKARLANEAN ARITZEKO, URAREN EUSKAL AGENTZIAREN ETA UDALAREN ARTEKO HITZARMENA SINATZEA ONARTZEA.	8
9. ONARTZEA ARAMAIOKO UDALAREN ESKU DAUDEN HAINBAT ERAIKINEN GARBIKETA ZERBITZUA KONTRATATZEKO LIZITAZIOAREN ESPEDIENTEA.	11
10. HIRI-HONDAKINAK BILTZEKO KUDEAKETA LAGAPENA EGITEA ONARTZEA.	11
11. ARAMAIOKO IRUDI MOZIOA.	12
12. OSPITAL ZAHARRARI BURUZKO MOZIOA.	13
13. ARABAKO MENDIAK ASKE MOZIOA.	13
14. GALDERAK ETA ESKAERAK.	15



1. ONARTZEA, BADAGOKIO, AURREKO BILKURAKO AKTA.

Alkate-Lehendakariak 2021eko ekainaren 24ko ohiko bilkurako aktaren gainean inork oharrik ote duen galdetu du.

Inork akta horri buruz oharpenik ez duenez, lehendakariak akta onartzeko bozketa deitu du eta aho batez onartu da, 2568/1986 Errege Dekretuaren, azaroaren 28koaren, Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Eraentza Juridikoaren Erregelamendua onartzen duenaren 91. artikuluan ezarritakoaren arabera.

2. DEKRETUEN BERRI EMATEA.

Udalbatza, besterik gabe, azken ohiko bilkuratik egin diren dekretuen jakitun gelditu da (145/21etik 196/21era).

3. ARAMAIOKO BAKE EPAILEA ETA HAREN ORDEZKOAREN IZENDAPEN PROPOSAMENA EGITEA.

“**Lehena.-** EAEko Auzitegi Nagusiari proposatzea, ondorengo herritarrak izendatzea udalerriko bake epailea eta haren ordezkoko bezala:

- Aramaioko Bake Epaile titular izateko izendatzea Antonio Elejalde Plazaola.
- Bake Epailearen ordezkoko izateko izendatzea Monika Landaluze Ruiz de Alegria.

Bigarrena.- Dagokion proposamena jakinaraztea EAEko Auzitegi Nagusiari eta bidaltzea, horrekin batera, proposatutako izangaien xehetasun-pertsonalak (NAN, adina, bizilekua, telefonoa eta lanbidea).

Hirugarrena.- Interesdunei erabakia jakinaraztea eta adieraztea hamar eguneko epean udaletxean agertu beharko direla karguaren onarpen zehatza egiteko eta Botere Judizialeko Lege Organikoaren 102, 302, 303 eta 389 artikuluek kargu judizialerako aurreikusitako ezgaitasun eta bateraezintasun kausak ez edukitzearen aitorpena egiteko.”

Besterik gabe, alkateak bozketa deitu eta Udalbatzak, bertaratutako zinegotzien aldeko botoarekin, udalbatza osatzen dutenen gehiengo absolutua bertan dagoelarik, Ogasun, Antolaketa eta Funtzionamendu Batzordearen proposamena, ONETSI ETA AKORDIO MAILARA JASO DU.

4. ALKATEA ESKUORDETZEA 2016JESK0004 ESPEDIENTEA BURUTZEKO SINATU BEHARREKO DOKUMENTUAK ETA EGOKI DIREN JARDUNBIDEAK AURRERA ERAMATEKO.

Alkate andreak hitza hartu eta adierazten du, 2016ko ekainaren 30eko Udalbatzak onartu zuela Torraldeko 6 poligonoko 640 lursaila, Ibarrako 3. poligonoko 725 lursaila eta Gantzagako (Kasatxo ondoan) 3. poligonoko 524 eta 525 lursailak eskuratzea. Dagokion salerosketa kontratua sinatu zen, ordainketa ere bai, baina, dokumentuak eskritura publiko bihurtzeko jardunbidean hainbat oztopok atzeratu egin zuten azkeneko urrats hori.

Besterik gabe, alkate-lehendakariak aurkezten du, Ogasun, Antolaketa eta Funtzionamendu Batzordeak Udalbatzari egiten dion akordio proposamena:

“**Lehena.-** Alkatea eskuordetza Torraldeko 6 poligonoko 640 lursaila, Ibarrako 3. poligonoko 725 lursaila eta Gantzagako (Kasatxo ondoan) 3. poligonoko 524 eta 525 lursailen eskuratzea (2016JESK0004 espedientea) burutzeko sinatu beharreko dokumentuak eta egoki diren jardunbideak aurrera eramateko.

Bigarrena.- Eskuordetza honek alkatea gaituko du, sinatu beharreko dokumentuak sinatzeko eta bete beharreko eginbide guztiak aurrera eramateko, Torraldeko 6 poligonoko 640 lursaila, Ibarrako 3. poligonoko 725 lursaila eta Gantzagako (Kasatxo ondoan) 3. poligonoko 524 eta 525 lursailak eskuratu, eskritura publikoan guztia jaso eta, halaber, jabetza erregistroan inskribatzeko jardunbidean.”

Besterik gabe, alkateak bozketa deitu eta Udalbatzak, bertaratutako zinegotzien aldeko botoarekin, udalbatza osatzen dutenen gehiengo absolutua bertan dagoelarik, Ogasun, Antolaketa eta Funtzionamendu Batzordearen proposamena, ONETSI ETA AKORDIO MAILARA JASO DU.



5. LANPOSTU ZERRENDAN AGUAZIL LANPOSTUAREN IZEN ALDAKETA.

Alkate-lehendakariak hitza ematen dio udal idazkariari gai honen nondik norakoak azaldu ditzan. Idazkariak hitza hartu eta gogorarazten du, gaur egun udalaren lanpostu zerrendan E taldean aurkitzen dela, 16 maila dagokiola eta lanpostuaren izendapen osoa dela "AGUAZILA-ZERBITZU ANITZETAKO LANPOSTUA". Bestalde, lanpostuen deskripzioan jasotzen diren funtzio eta eginbeharrak dira zerbitzu anitzetako lanpostu bati dagozkionak.

Halaber, lege aldaketak direla eta, Eusko Jaurlaritzak udalari adierazi dio ezinezkoa dela gisa horretako lanpostu bat izatea, aukeratu beharra dagoela: edo aguazila da, edo zerbitzu anitzetako langilea da.

Kontua da, 781/1986 Legegintzako Errege Dekretua, apirilaren 18koa, Toki-araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen testu bategina onartzen duena (TJTB) laugarren xedapen iragankorraren 1. zenbakian adierazten denez, udaltzaingorik ez dagoen udalerrietan, udaltzaingoko laguntzaileek beteko dute eginkizun hori; hau da, zaindariak, zaintzaileak, agenteak, aguazilak edo antzekoak. Eta, zentzu honetan, 1/2020 Legegintzako Dekretuak onartutako uztailaren 22ko Euskal Herriko Poliziari buruzko Legearen testu bateginaren (aurrerantzean, EHPL) zazpigarren xedapen iragankorraren lehenengo atalean xedatzen denez, aguazil, jagole edo antzeko izena duten udaletako funtzionarioak Udaltzaingoaren zerbitzuko agentearen kategorian sartuko dira, eta, EHPLren 60.3 artikulua arabera, kategoria horretako langileak funtzionarioak dira.

Puntu honetan komeni da gogoraraztea, EHPLren zazpigarren xedapen iragankorrek adierazten du aguazil, jagole edo antzeko izena duten udaletako funtzionarioak C taldeko C1 azpitaldean sartuko direla, Udaltzaingoaren zerbitzuko agente-kategorian. Ondorioz, aguazil lanpostua izanez gero, C1 azpitaldean sartu beharko litzateke, eta horrek esan nahi du, era berean, lanpostu horretan sartzeko betekizun gisa, 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duenaren, (aurrerantzean EPOELTB) 76. artikulua arabera, kidegoen eta eskalen sailkapena zehazten duena horietan sartzeko eskatzen den titulazioaren arabera, eskatu beharreko titulazioa dela batxiler-titulua, titulu teknikoa edo baliokidea, xedapen horretan bertan ezartzen diren berezitasunei alde batera gabe.

Gainera, adierazitako guztiaren ondorioz, aguazilak, zaindariak edo antzekoak izeneko lanpostuak Udaltzaingoaren zerbitzuko agente deituko dira, indarrean dagoen araudira egokitzeke. Beraz, aguazil lanpostua izanez gero, postu horri Udaltzaingoaren zerbitzuko agente deitu beharko litzaioke, eta Udaltzaingoaren zerbitzuko agentearen kategoriako E taldea, C1 azpitaldean sartu. Ondorioz, bertara sartzeko batxiler-titulua, titulu teknikoa edo baliokidea eskatuko da, zazpigarren xedapen iragankor horretan ezartzen diren berezitasunei kalterik egin gabe. Udaltzaingoaren zerbitzuko

Aitzitik, langile balioaniztunaren lanpostua izanez gero, EPOELTBren seigarren xedapen gehigarrian aurreikusitako beste lanbide-talde batzuen taldean sartuko litzateke, lanbide-sailkapen berria indarrean jartzea arautzen duen EPOELTBren hirugarren xedapen iragankorraren arabera.

Esan beharra dago baita ere, talde aldaketak ez duela ekarriko, berariaz, udalarentzat inongo gastu gehigarririk soldatei dagokionez. Haatik, lanpostua betetzen duenak dagozkion ikastaro bereziak egin beharko litzateke eta bere funtzioak goitik behera aldatuko liratekeenez, lanpostuari dagozkion funtzio eta eginbeharrak egoera berrira egokitu beharko lirateke.

Pedro Elosegui González de Gamarra zinegotziak adierazten, ez duela argi ikusten; galdetzen du ea nork egin behar dituen aguazilari dagozkion lanak.

Iban Herrarte Arana zinegotziak erantzuten dio, orain artean egin dituen lan berdinak egiten jarraituko duela gaur egun lanpostua betetzen duenak. Azken finean, egiten dituen lanak ez direla udaltzain bati dagozkionak, era horretako eskumenik ez dituela ere. Aldi berean, ohikotasunean egiten dituen lanak ez dituztela udaltzainek egiten: jakinarazpenak etxez etxe banatu; udalerriko ur kontadoreen irakurketa egin; mendi pisten egoera konprobatu; konpost-guneaz arduratu; ekitaldietan barrerak jarri; eszenatokia muntatu; eta abar.

Oihana Ameskua Perez eta Santiago Balantzategi Beitia zinegotziek ere zentzu berean hitz egiten dute, azpimarratuz, egiten dituen lanak egiten jarraituko duela. Izendapen kontua besterik ez dela, lanpostuari dagozkion eginbehar eta funtzioak jasoak daudela lanpostuaren deskripzioan eta hori ez dela aldatuko. Praktikan, herritarrentzat ez dela inongo aldaketarik, egungo zerbitzu bera jasoko baitute.

Juan Antonio Peña Orobengoa zinegotziak dio, langilearen uniformearen aldatu egin beharko dela gaur egun "aguazila" esaten duen izendapena.



Alkateak erantzuten du, uniforme aldatzerakoan ez dela berriz izendapen hori jasoko.

Besterik gabe, alkate-lehendakariak aurkezten du, Ogasun, Antolaketa eta Funtzionamendu Batzordeak Udalbatzari egiten dion akordio proposamena:

“**Lehena.-** Onartzea lanpostu zerrendan aguazil lanpostuaren izen aldaketa egitea. Orain arte “AGUAZILA-ZERBITZU ANITZETAKO LANPOSTUA” izendapenarekin jasota dagoen lanpostuaren izendapena izango da “ZERBITZU ANITZETAKO LANGILEA”.

Bigarrena.- Dagokion iragarkia argitaratzea ALAHOn.

Hirugarrena.- Honakoaren berri jakinaraztea Eusko Jaurlaritzaren Gobernantza publiko eta Autogobernu Sailari.”

Besterik gabe, alkateak bozketa deitu eta EH Bildu udal taldeko zinegotzien aldeko 7 bozkekin eta EAJ-PNV udal taldeko zinegotzien 2 abstentziorekin, Ogasun, Antolaketa eta Funtzionamendu Batzordearen proposamena, ONETSI ETA AKORDIO MAILARA JASO DU Udalbatzak.

6. ONARTZEA, BADAGOKIO, HASIERAKO ONARPENA EMATEA 2022 URTERAKO ORDENANTZA FISKALEN ALDAKETARI.

Alkateak hitza hartu eta zehaztu du, 2022 ekitaldiari begira udal ordenantza fiskaletan zein aldaketa egitea proposatzen den:

+ HIRI HONDAKINEN TASA

Ordenantza hau 2017an berriztu zen guztiz eta berria 2018an jarri zen martxan. Berrizte horretan ordaintze tasak gehiago zehaztu ziren eta urteak zeramatzanez igoerarik izan gabe, eta Jundizeko hondakinen tasa asko igoenez, %25eko igoera aplikatu zen. Orduetik, %4ko igoera bat egin zitzaion, 2020tik aurrera aplikatu zena:

	udal ordenantzaren garapena		
	2021	2020 (%4)	2019
Etxebizitzak	63,75	63,75	61,30
Lokal profesionalak	95,63	95,63	91,95
Merkataritza, tailer mekanikoak, lehen sektore profesionala,...	127,5	127,5	122,60
Taberna, jatetxeak, elkarte gastronomikoak,...	159,38	159,38	153,25
Industria/hezkuntza (Mendixola)	223,1	223,1	214,52

Baina tasa honek momentu honetan, hondakinek sortzen duten gastuaren %61a soilik estaltzen du:

2020an kobratze maila	
70.893,29€	43.275,00€
GASTUAK	SARRERAK

Zerbitzu honen gastua Jundizeko hondakinen tasak asko baldintzatzen du, eta hondakinak penalizatu eta murrizten joateko betebeharrak, azken urteetan igoera ezberdinak izatea ekarri dute. 2022ra begira, oraindik ez du Gasteizko Udalak igoera definitiborik onartu baina aurreratu digute %3ko igoera dela proposatzen dutena.

Jundiz igoerak		
2016	68,56€/t	
2017	68,56€/t	%0
2018	85€/t	%24
2019	85€/t	%0
2020	88,4€/t	%4
2021	91,97€/t	%4
2022	94,73€/t	%3

Guzti hau kontuan izanda **%7ko igoera egitea proposatzen da**, 2021 eta 2022ko Jundizeko tasaren igoerei aurre egiteko

+BIDEEN ERABILERA TASA



Ordenantza honetan jasota dagoena betetzeko, KPI igoera egitea proposatzen da. KPI aurreikuspena **%2,7an** dagoenez, igoera hori egitea proposatzen da

+ URA/SANEAMENDUA TASA

Ordenantza hau, 2017an aldatu zen guztiz eta gaur egunera egokitu zen, sistema bera guztiz aldatuz. Orditik ez du modifikaziorik izan. Gastuak areagotu egin dira eta prezioak igo azken urte hauetan. Hori dela eta, urteko KPI aurreikuspena **%2,7an** dago, igoera hori egitea proposatzen da.

+ IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA

Ordenantza hau 2012an aldatu zen guztiz, ordaintze tarte ezberdinak ezarriz. Orditik bi aldiz bakarrik igo da, 2014ean eta 2020an, urteko KPIa aplikatu zen. Hori dela eta, urteko KPI aurreikuspena **%2,7an** dago, igoera hori egitea proposatzen da. Eta kotxe zaharren hobaria kentzea proposatzen da, kotxe klasiko ofizialek salbuespena dute jada ordenantzan jasota, beraz kotxe zaharrek kutsatzen duten guztia kontuan izanda kentzea proposatzen da:

4.2. artikulua. (Zergaren hobariak).

a) ataleko hobaria kentzea:

“Zergaren kuotan % 50eko hobaria ezartzen da ibilgailu historikoentzat edota gutxienez 25 urte dituztenentzat fabrikazio datatik zenbatuta, edo, fabrikazio data ezagutzen ez bada, lehen aldiz matrikulatu zenetik zenbatuta edo, halakorik ezin bada, ibilgailu mota edo aldagai hori fabrikatzeari utzi zaionetik zenbatuta.”

+ JABETZA ETA ERABILERA PUBLIKOKO LURZORUAK OSTALARITZARAKO NOLA OKUPATU ARAUTZEN DUEN ORDENANTZAREN ALDAKETA TASA

6. artikulua. Azalerak okupatzeko baldintza orokorrak.

3. puntuaren jatorrizko idazkera:

“3. Ez da honako hauetan terrazak ezartzeko baimenik emango: galtzadan edo iraunkorki aparkatzeko edo antzeko beste erabilera batzuetarako finkatutako espazioetan, larrialdiko irteeren aurrean, atarien irteera aurrean, pasabideen aurrean edo ezinduentzako aparkalekuen aurrean.”

Idazkera proposamena:

3 atalaren idazkera berria:

“3. Ez da honako hauetan terrazak ezartzeko baimenik emango: larrialdiko irteeren aurrean, atarien irteera aurrean, pasabideen aurrean edo ezinduentzako aparkalekuen aurrean.”

7 atal berriaren sorrera:

“7. Salbuespenezko kasuetan soilik emango da baimena terraza ezartzeko, galtzadan edo iraunkorki aparkatzeko edo antzeko beste erabilera batzuetarako finkatutako espazioetan. Hirigintza batzordeak erabakiko du, kasuan kasu, salbuespen izaeratzat jotzeko dagozkion baldintzak betetzen diren edo ez.”

Besterik gabe, aurkezten du Ogasun, Antolaketa eta Funtzionamendu Batzordeak eta Zerbitzuen Batzordeak Udalbatzari egiten dioten erabaki proposamena, 2022ko urtarrilaren 1ean indarrean sartuko diren ordenantza fiskalen aldaketari buruz:

“**Lehena.-** Onartzea goian aipatutako aldaketak egitea, ondorengo kontzeptuak arautzen dituzten udal ordenantza fiskaletan: hiri hondakinen tasa; bideen erabilera tasa; ura eta saneamendu tasa; trakzio mekanikoko ibilgailuen zerga; eta jabetza publikoko lurzorua ostalaritzarako nola okupatu arautzen duena.

Bigarrena.- Uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauko 16 artikuluan ebatzitakoarekin bat, jakinaraztea behin behineko izaeraz onartu diren zerga ordenantza eta tasak arautuko dituen ordenantzako testua, apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 49.b) artikuluan erabakitakoarekin bat (41/1989 Foru Arauko 50. artikulua batekin bateratsu), jendearen eskura jarrita daudela, udaletxeko bulego orokorrean, 30 egunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, interesdunek egoki irizten dituzten erreklamazioak aurkezteko.



Hirugarrena.- Jakinaraztea, halaber, erreklamaziorik ez badela aurkezten erakustaldi publikoaren epearen barruan, erabakia behin betiko onartutzat hartuko dela.”

Besterik gabe, alkateak bozketa deitu eta Udalbatzak, bertaratutako zinegotzi guztien aldeko botoarekin, aho batez, Ogasun, Antolaketa eta Funtzionamendu Batzordearen proposamena, ONETSI ETA AKORDIO MAILARA JASO DU.

7. ARAMAIOKO KIROLDEGIA ERABERRITZEKO ETA HANDITZEKO OBREN EXEKUZIO PROIEKTUA ONARTZEA.

Arabako Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluaren 22/2019 Foru Dekretuaren bidez (2019ko apirilaren 10eko 44 zenbakidun ALHAOn argitaratua) Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren 2020-2021 programaren dirulaguntzen deialdia egin zen.

Foru Gobernu Kontseiluaren 640/2020 abenduaren 9 ko erabakiaren bidez onartu zen, Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren 2020-2021eko programaren kontura diru-laguntzak ematea (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialaren 2020ko abenduaren 11 ko 141. zenbakian argitaratua). Tartean, Aramaioko kiroldegia eraberritzeko eta handitzeko obrarako dirulaguntza. Dirulaguntzaren ezaugarriak dira: batetik, 413.894,19 euro aurkeztutako aurrekontua eta diruz lagundu daitekeen aurrekontua; eta, bestetik, diru laguntzaren zenbatekoa, 289.725,93 euro.

Obra hori honako arau hauetan xedatutakoaren arabera egingo da: 9/2017 Foru Araua, apirilaren 12koa, Arabako Foru Aldundiaren Obra eta Zerbitzuen Foru Plana arautzen duena; deialdia arautzen duten oinarriak; eta, Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren 2020-2021eko programa ebatzen duen akordioa.

2021eko ekainaren 28ko 208/21 alkate dekretuaren bidez esleitu zitzaion, Aramaioko kiroldegia eraberritzeko eta handitzeko obren exekuzio proiektuaren idazketaren kontratua txikia PEDRO APAOLAZA Y ASOCIADOS S.L enpresari.

Haatik, azken aldiaren lehengaiak jasandako prezio igoera dela eta, obraren kostuaren igoera ekidin ezina zela adierazi zion esleipendunak udalari. Arabako Foru Aldundian kontsulta egin ondoren, irailaren 30eko sarrera data eta 1241 zenbakia dituen idazkian erantzun dute, hitzez hitz. *“Igorritako dokumentazioaren arabera, diruz lagundu daitekeen gehiengo aurrekontua 470.183,65 eurokoa litzateke eta eman daitekeen dirulaguntza 318.698,52 eurokoa. Behin betiko kopurua obraren esleipena ikusita finkatuko da.”* Bestela esanda, kostua igo dela onartu eta kopuru handiagoko dirulaguntza onartzeko prest dago Foru Aldundia.

Aurreko guztia kontuan hartuz, obraren plan finantzarioa ondorengo izango da:

OBRAREN KOSTU OSOA	€
Kontrata bidezko gauzatzearen aurrekontua: gauzatze materialaren aurrekontua+gastu orokorrak (%13)+enpresa mozkina (%6)+BEZa (*)	470.183,65
Proiektua idazteko ordainsari teknikoak + BEZa (*)	12.221,00
Obren zuzendaritzako ordainsari teknikoak + BEZa (*)	12.221,00
Bestelako ordainsari teknikoak (zehaztu) + BEZa (*)	
Denetara	494.625,65

OBRAREN FINANTZAKETAN ERABILI BEHARREKO BALIABIDEAK*	€
Foru Planaren bidez emandako dirulaguntza	318.698,52
Foru Planaren bidez ordainsarietarako aurreikusitako dirulaguntza	12.221,00
Erakundeak erabiltzen dituen baliabide propioak	163.706,13
Baliabideak denetara	494.625,65



Ondoren, alkateak aurkezten du Ogasun, Antolaketa eta Funtzionamendu Batzordeak Udalbatzari egiten dion proposamena:

“Lehena.- Onartzea “Aramaioko kiroldedia eraberritzeko eta handitzeko obrak” gauzatzeko proiektu teknikoa.

Bigarrena.- Arabako Foru Aldundiari obra gauzatzeko proiektua bidaltzea”.

Besterik gabe, alkateak bozketa deitu eta Udalbatzak, bertaratutako zinegotzien aldeko botoarekin, aho batez, Ogasun, Antolaketa eta Funtzionamendu Batzordearen proposamena, ONETSI ETA AKORDIO MAILARA JASO DU.

8. JABARI PUBLIKO HIDRAULIKOAN DIREN IBAI-IBILGU ETA ERTZETAN ELKARLANEAN ARITZEKO, URAREN EUSKAL AGENTZIAREN ETA UDALAREN ARTEKO HITZARMENA SINATZEA ONARTZEA.

Alkateak azaltzen du, URA - Uraren Euskal Agentziarekin sinatzea proposatzen den hitzarmen edo protokolo honen bidez, Aramaioko Udalari erraztu egingo zaiola jabari publiko hidraulikoan hainbat lan egitea (esaterako, hainbat arazo sortzen dituzten sastraka eta zuhaixken txukuntze eta garbitze lanak). Betiere, aurretiaz, ekintza plan bat adostu beharko da ur agentziarekin eta, halaber, jabari publiko hidraulikoko ibai-ibilgu eta ertzetan egin beharreko lanei buruz neurriak hartu beharko dira ertzetako eta ibaiertzeko landaredian kalteak ekiditeko eta, orokorrean, ibai-ekosistema eta bere biodibertsitatea babesteko.

Hitzarmenaren testuak horrela dio, hitzez hitz:

“PROTOKOLOA, URAREN EUSKAL AGENTZIAREN ETA ARAMAIOKO UDALAREN ARTEKOA, ARAMAIOKO UDALERRIAN DAUDEN JABARI PUBLIKO HIDRAULIKOAN DIREN IBAI-IBILGU ETA ERTZETAN ELKARLANEAN ARITZEKO.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko urriaren 21a.

BILDU DIRA

Batetik, Antonio Aiz Salazar jauna, Uraren Euskal Agentziaren zuzendari nagusia den aldetik, eta Lierni Altuna Ugarte andrea ARAMAIOko Udaleko alkatea-udalburua.

ESKU HARTU DUTE

Lehenak, Uraren Euskal Agentziaren zuzendari nagusia den aldetik eta Agentziaren Estatutuen 7.2.g) artikulua ematen dizkion eskumenak betez. Bigarrenak, udalaren legezko ordezkari gisa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21. artikulua Udala ordezkatzeko ematen dion lege ahalmena betez.

Bi aldeek PROTOKOLO hau sinatzeko beharrezko legezko gaitasuna onartzen diote elkarri eta, horretarako

HONAKOA AZALTZEN DUTE

LEHENENGOA.- Ekainaren 26ko 1/2006 Legeak Uraren Euskal Agentzia sortu zuen, ingurumen-gaietako eskumena duen sailari atxikitako zuzenbide pribatuko erakunde publiko gisa, eta lege horren arabera, Euskadin uraren inguruko politika gauzatzea du xede agentzia horrek. Horri dagokio, besteak beste, jabari publiko hidraulikoa babesteko egin beharrekoak egitea edota Estatuko Administrazioak eskualdatutako, eskuordetzan emandako edo Agentziaren esku utzitako funtzioak gauzatzea.

Halaber, berari dagokio arloko eskumenak dituzten administrazioekin koordinatuta, jabari publiko hidraulikoaren babes eta kontserbazioa bermatzea.

BIGARRENA.- Oro har, eta apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25. artikulua arabera, udalerririk berriazko eskumenen artean ditu, besteak beste, hiri-ingurumenaren kudeaketa eta espresuki, hiri-hondakin solidoen kudeaketa eta herri- osasungarritasunaren babesa.

26. artikulua xedatzen du udalerririk orok hondakinen bilketarako lanak egin behar dituela.

Halaber, apirilaren 7ko Euskadiko Toki Erakunde bidezko 2/2016 Legearen 17. artikulua honako hauek jasotzen ditu udalerririk eskumen propioen artean:

- Ingurumenaren babesa eta garapen jasagarria modu osagarrian antolatzea, sustatzea, kudeatzea eta defendatzea.
- Osasun publikoa sustatzea, kudeatzea, defendatzea eta babestea.



- Udal-hondakinak edo hiri-hondakin solidoak bildu eta tratatzeko zerbitzuak antolatzea, kudeatzea, ematea eta kontrolatzea, eta hondakin gutxiago sortzeko plangintza, programazioa eta diziiplina ezartzea.

HIRUGARRENA.- Beste alde batetik, Plan Hidrologiko Nazionala arautzen duen uztailaren 5eko 10/2001 Legearen 28.4 artikuluko xedatzen duenaren arabera, lurralde antolakuntza eta hirigintzan eskumenak dituzten Administrazioei dagozkie hiri-eremuetako ibai-ibilguetan egin beharreko lanak egitea. Betiere, kontuan hartuta administrazio hidraulikoak jabari publiko hidraulikoaren kudeaketan dituen eskumenak.

Orobat, ekintza horiek finantzatzeko, ezartzen du Autonomia Erkidegoko administrazioen eta Toki-administrazioen artean badela hitzarmenak sinatzeko aukera.

LAUGARRENA.- Gainera, apirilaren 11ko 849/1986 Errege Dekretuaren (Jabari Publiko Hidraulikoaren araudia onartu duenaren) 126 ter artikuluko 6. zenbakiaren bidez jabari publiko hidraulikoan azpiegiturak dituzten titularrei eskatzen zaie azpiegitura husteko ahalmena mantentzeko behar diren kontserbazio-lanak egin behar dituztela.

BOSGARRENA.- Uraren Euskal Agentziak egun Jabari Publikoa Leheneratu eta Zaintzeko Arloa dauka. Arlo horrek honako hauek ditu xede: alde batetik, ibaiekosistemaren ingurumen hobekuntza eta, bestetik, gaitasun hidraulikoa hobetzeko lanak egitea, horiek lehentasunezkoak direla uste den lekuetan.

SEIGARRENA.- Uraren Euskal Agentziak, jabari publikoa leheneratu eta zaintzeko lanak egiteko bere lankidetzara eskeintzen dio ARAMAIOKo Udalarri honako helburu hauekin: ibilguen ingurumena hobetu eta mantentzeko lanak egitea, eta, aldi berean, udalerrira zeharkatzen duten ibai-tarteetan, gaitasun hidraulikoa ahalmena bermatzeko lanak egitea.

ZAZPIGARRENA.- ARAMAIOKo Udalak eskura jartzen du hiri-hondakin solidoak biltzeko duen zerbitzua, udalerrira zeharkatzen duten ibaietan, ibai-tarteetan sartu eta hiri-hondakin solidoak edo baliokideak kendu ahal izateko, edota udaletxetik sustatu nahi diren ingurumen hobekuntzarako beste edozein ekimen egin ahal izateko, betiere ibai ekosistemaren sustapenarekin, mantentzearekin, lehengoratzarekin eta hobekuntzarekin lotuta daudenak.

ZORTZIGARRENA. Azaldutako guztiagatik, bi erakundeek onerako da protokolo bat sinatzea, esparru honetan bakoitzari dagozkion eginbeharrak zehazten dituen, eta, baita protokoloaren jarraipena egiteko batzordea osatzea ere. Batzorde hori, bi erakundeetako ordezkariak osatuko dute, eta xede izango du udalerrira zeharkatzen duen ibai-tarteetan ibilguetako lanak planifikatu, koordinatu, ebaluatu eta erraztea; bai ibai-ekosistemaren ingurumena mantentzeko, lehengoratzeko eta hobetzeko lanak egiteko, bai ur-hustuketarako ahalmena bermatzekoak egiteko.

KLAUSULAK

LEHENENGOA.- PROTOKOLOAREN HELBURUA

Protokolo honen helburua da, Uraren Euskal Agentziak eta ARAMAIOKo Udalak hartutako konpromisoaren baldintzak arautzea, Ekintza Plan bat adostu eta bi erakundeek ARAMAIOKo udalerrian dauden jabari publiko hidraulikoko ibai-ibilgu eta ertzetan egin beharreko lanetan eraginkorrak izateko. Protokolo honen esparruan jasotako lanek neurriak hartu beharko dituzte ertzetatik eta ibaiertzeko landaredian kalteak ekiditeko eta, orokorrean, ibai-ekosistema eta bere biodibertsitatea babesteko.

BIGARRENA.-EKINTZA-PLANA

Ekintza-plana zehazteko honako pausu hauek jarraituko dira:

a) Erakunde bakoitzak, alde aurretik, udalerriko ibai-bilgu eta ertzetan egiteko ekintzen plangintza bat egingo du. Plangintza horretan sartuko diren ekintza zehatzak aukeratzeko orduan, honako hauek izango dira kontutan: alde batetik, oro har, Agentziak lehenetsiko ditu jabari publiko hidrauliko eta bere ertzak birgaitu, zaindu eta leheneratzeko lanak. Bestetik, Udalak honako ekintza mota hauei emango die lehentasuna: hondakin-bilketari, ur hustuketarako ahalmena bermatzeari jabari publiko hidraulikoan eragina duten udal azpiegiturretan; eta udal-azpiegituren egoera ona mantentzeko lanei, eta baita lanak egikaritzeko beharrezko lursailak uztea ere, hauek behar izatekotan.

Era berean, urteko plangintza horretan, sartuko dira, boluntariotzako jarduerak edota sentiberatze programen bidez egindako ibilgu eta ertzak mantentzeko eta leheneratzeko ekintzak.

b) Urte amaieran, erakundeek bere plangintza elkarri erakutsiko diete, honako hauek betetzeko:

- Beste administrazioaren plangintzari ekarpenak egiteko.
- Proposaturiko ekintzen artean garrantzitzuenak lehenesteko.
- Lan zehatzak egin aldera, izan litekeen lankidetzara adosteko.

c) Urtean zehar, Agentziak eta ARAMAIOKo Udalak elkar informatuko dute udalerrian egingo dituzten ekintza zehatzei buruz, lanprograma komun bat zehazteko.

HIRUGARRENA.- ERAKUNDE BAKOITZAREN BESTELAKO KONPROMISOAK

Ekintza-plana adostu ondoren, bi erakundeek honako konpromiso hauek hartzen dituzte:



1.-Uraren Euskal Agentziak, honako hau: jabari publiko hidrauliko eta bere ertzak birgaitu, zaindu eta leheneratzeko lanak egitea udalerraren eremuko ibaia edo ibaien herri tarteetan.

2.-ARAMAIOko Udalak, honako hau: hondakinbilketa, ur hustuketarako ahalmena bermatzea jabari publiko hidraulikoan eragina duten udal-azpiegituretan eta baita Uraren Euskal Agentziak egin beharreko lanak egitea erraztea, egikaritzeko beharrezko lursailen hartzea kudeatuz.

3.- Erakunde bakoitzak bere gain hartuko ditu adostutako ekintzen kostuak, erakunde bakoitzaren aurrekontu baliabideen arabera.

LAUGARRENA.- HITZARMENEN JARRAIPENERAKO BATZORDEA

1.- Protokolo honen jarraipenerako batzorde bat eratuko da. Batzorde hori lau ordezkari osatuko dute: bi Uraren Euskal Agentziakoak izango dira eta beste bi ARAMAIO ko Udalekoak. Protokoloa sinatzen duen alde bakoitzak izendatuko ditu bere ordezkariak, honako eginkizun hauetarako:

a) Administrazio bakoitzak egindako ibaimantentze lan zehatzen inguruan informazioa eman, eta, aldi berean, udalerrian egiteko dituen lan- aurreikuspenen inguruan jakinaren gainean jarri.

b) Plangintza proposamenetan beste administrazioaren ekarpenak jaso, proposaturiko ekintzen artean lehentasunak zeintzuk diren adostu edota lanak egiterako orduan elkarrekiko lankidetzaz zehaztu.

c) Mantentze lanak koordinatu: baliabideak zuzur erabili eta ibaietan garatzekoak diren lanen eraginkortasuna handitzeko.

d) Elkarrekin adostutako urteko ekintza programa idatzi: bi erakundeen arteko lan banaketa zehazte aldera.

e) Datozen urteetara begira, gutxienez urtean behin, urtean zehar egin beharreko ekintza-programa proposatu, eta administrazio bakoitzaren lanak zeintzuk diren zehaztu.

f) Zehaztu aurretiko urtean zehar elkarlanean jada aurrera eramandako mantentze lanen berri emateko era.

g) Adostasun-irtenbideak bilatu; baita Protokoloaren aldatetari legezkoak ere.

h) Protokolo honek aurreikusi edota zehaztu ez dituen arazoak konpondu; baita protokoloaren interpretazio edota betearazteari legezkoak ere.

i) Protokolo honen edukiaren moldaketa edota iraungipena proposatu.

2.- Protokoloa indarrean dagoen bitartean, eta edozein aldetako ordezkariak hala eskatzen badu, batzordea bildu egingo da behintzat urtean behin eta behar den aldi guztietan jardunak ondo joan daitezzen. Bilkura egiteko kide guztiek bertan egon beharko dute eta erabakiak ere aho batez hartu beharko dira.

3.- Hitzarmenean jarraipen batzordeari buruz berariaz ezarrita ez dagoen guztietan kide anitzeko organoen araubidea aplikatuko da (Sektore Publikoko Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen Atariko Tituluaren II. kapituluko 3. zenbakian arautzen dena).

BOSGARRENA.- PROTOKOLOAREN ONDORIOAK ETA IRAUPENA

1.- Protokoloak ez ditu parte-hartzaileak behartuko nork bere aginpideei uko egin edo haiek aldatzera, eta protokoloaren ondorio diren konpromisoengatik erantzukizunak bakarrik hartuko dituzte beren gain.

2.- Protokoloak sinatzen den momentutik izango ditu ondorioak, eta sinatzen den unetik behartuko ditu parte hartzaileak. Orditik kontaktzen hasita, protokoloak lau urteko iraupena izango du, nahiz eta partehartzaileek protokoloarean edozein momentutan adostu dezaketen beste lau urtetarako luzapena.

Hitzarmenari uko egiten bazaio, beste aldeari idatziz jakinaraziko zaio, gutxienez protokoloa iraungi baino bi hilabete lehenago.

SEIGARRENA.- PROTOKOLOA IRAUNGITZEA

Protokoloa aurreko klausulan ezarritako indarraldia igaro delako edo hitzarmena hautsi egin delako iraungiko da.

Eta horren guztiaren ondorioz eta horrekin bat, aldeek idazpuruan adierazitako leku eta egunean sinatu dute protokoloa bina aletan.”

Ondoren, alkateak aurkezten du Zerbitzu Batzordeak Udalbatzari egiten dion proposamena:

“**Lehena.-** Onartzea jabari publiko hidraulikoan diren ibai-ibilgu eta ertzetan elkarlanean aritzeko, uraren euskal agentziaren eta udalaren arteko hitzarmena sinatzea.

Bigarrena.- Alkate andrea eskuordetzea hitzarmen edo protokolo hau sinatzeko”.



Besterik gabe, alkateak bozketa deitu eta Udalbatzak, bertaratutako zinegotzien aldeko botoarekin, aho batez, Zerbitzu Batzordearen proposamena, ONETSI ETA AKORDIO MAILARA JASO DU.

9. ONARTZEA ARAMAIOKO UDALAREN ESKU DAUDEN HAINBAT ERAIKINEN GARBIKETA ZERBITZUA KONTRATATZEKO LIZITAZIOAREN ESPEDIENTEA.

Alkateak hitza hartu eta adierazten du, gaur egun indarrean dagoen eraikinen garbiketa zerbitzua datorren abenduan amaitzen dela eta ez dagokiola luzapen gehiago egitea. Horren aurrean, Udalbatzak espedienteari hasiera ematea adostu zuen, premiazko zerbitzu horren esleipena berriz egin ahal izateko jardunbidea abiatzeko, zehazki, 2021eko urtarrilaren 28an egindako saioan.

Udal zerbitzuek prestatu dituzte egoki diren txostenak, administrazio baldintza bereziak eta preskripzio teknikoak.

Iban Herrarte Arana zinegotziak, zerbitzuetako udalburuak hitza hartu eta gaineratzen du, aurreko lizitazioetik gauza gutxi aldatu dela zereginei dagokionean. Hala ere, azpimarratu beharra dago, eraikin bat gehiago sartzen dela (erabilera anitzeko udal gazte zentroa) eta eskolako gimnasioa astean hiru aldiz garbitu beharra ikusi dela, orain arteko bi aldiak gutxi zirelako.

Aurreko guztia ikusirik, alkateak aurkezten du Zerbitzu Batzordeak Udalbatzari egiten dion proposamena:

“Lehena.- UDALAREN ESKU DAUDEN HAINBAT ERAIKINEN GARBIKETA ZERBITZUAREN KONTRATUA lehiaketa bidez emateko espediente onestea, eta, hartara, administrazio-klausula berezien eta preskripzio teknikoen agiriak onestea, kontratazioa arautuko baitute.

Bigarrena.- Lizitazio-prozedura irekitzea; hain zuzen ere, prozedura irekiaren bidez, esleitzeko hainbat irizpide emanda: batetik, eskaintzaren balorazio teknikoa, balio iritziaren araberakoa dena; eta bestetik, eskaintako prezioa, automatikoki zenbatesteko irizpidea dena. Guztia, izapidetze arruntarekin bideratuko da.

Hirugarrena.- Lizitazio-iragarkia udalaren kontratatzailearen perfilean argitaratzea, parte-hartzeko eskabideak aurkezteko epea irekitze aldera.

Laugarrena.- Alkatea ahalmentzea ondokoak egin ahal izateko: eskaintza onuragarriena egiten duen lizitatuzaileari errekerimendua egiteko, espediente honetako akats materialak zuzentzeko eta pleguetan ematen zaizkion gainontzeko ahalmenak egikaritzeko.”

Bozketa deitu eta Udalbatzak, bertaratutako zinegotzi guztien aldeko botoarekin Zerbitzu Batzordeak proposatutako erabakia, ONETSI ETA AKORDIO MAILARA JASO DU.

10. HIRI-HONDAKINAK BILTZEKO KUDEAKETA LAGAPENA EGITEA ONARTZEA.

Alkateak adierazten du, amaitu dela orain arte indarrean izan den hiri hondakinak biltzeko kudeaketa gomendioaren epea (Aramaioko Udalaren eta Gorbeia ingurueta partzuergoaren arteko hitzarmena, Aramaioko udalerrian etxeko hondakinak eta antzekoak biltzeko lanak kudeatzeko eta baimendutako tratamendu-instalazioetara garraiatzeko kudeaketa gomendia).

Hainbat bilera izan dituzte alkateak eta zerbitzuetako zinegotziak mankomunitateko arduradunekin eta, zenbait zalantza argitu ondoren, berria sinatzea proposatzen da. Baldintzak izango dira aurrekoaren berdinak eta, salbuespen bakarra da, oraingoarekin mankomunitatearen esku geldituko dela edukiontzi guztien kudeaketa.

Pedro Elosegui González de Gamarra zinegotziak galdetzen du ea ez dagoen sinatu nahi den hitzarmen edo kudeaketa lagapenaren testua duen dokumenturik.

Alkateak erantzuten dio, mankomunitateko idazkaria gelditu zela dokumentua prestatu eta bidaltzeko, haatik, oraindik ez duela jaso.

Pedro Elosegui esaten du, kasu horretan, hurrengo batzar batetarako uztea izango dela.

Alkateak aldiz dio, mankomunitatearentzat oso presazkoa eta atzera ezina dela.

Ondoren, alkateak aurkezten du Zerbitzu Batzordeak Udalbatzari egiten dion proposamena:



“Lehena.- Onartzea hitzarmena sinatzea, Aramaioko Udalaren eta Gorbeia inguruetako partzuergoaren artean, Aramaioko udalerrian etxeko hondakinak eta antzekoak biltzeko lanak kudeatzeko eta baimendutako tratamendu-instalazioetara garraiatzeko kudeaketa gomendioa egiteko.

Bigarrena.- Alkate andrea eskuordetzea hitzarmena sinatzeko

Hirugarrena.- Dagokion iragarkia argitaratzea ALHAOn”.

Besterik gabe, alkateak bozketa deitu eta Udalbatzak, EAJ/PNV udal taldeko bi zinegotzien abstentzioarekin eta EH Bildu udal taldeko zinegotzien aldeko 7 botorekin, hau da, udalbatza osatzen duten zinegotzien gehiengo absolutuaren onarpenarekin, Zerbitzu Batzordearen proposamena, ONETSI ETA AKORDIO MAILARA JASO DU.

11. ARAMAIOKO IRUDI MOZIOA.

Juan Antonio Peña Orobengoa zinegotziak hitza hartu eta EAJ/PNV udal taldeak aurkeztutako mozioa azaltzen du. Mozioak horrela dio, hitzez hitz:

“ARAMAIO IRUDI MOZIOA

Bistakoa da lehenengo inpresioa oso garrantzitsua dela, bai jendeari, paisaiei, udalerriei eta abarri dagokiona.

Aramaio bisitatzen duen edozein pertsonak ikusiko duen lehenengo gauza,

herriko eraikin publiko eta pribatu desberdinetan dauden pintada ugariak izango dira, horrek ematen duen irudi txarreakin, eta adierazten duen zikinkeria eta utzikeriarekin.

Azkenaldian, telebistaren, prentsaren eta abarren bidez gure herrietara bisitariak erakartzeko kanpainak handitzen ari dira gurean, paisaiaren, gastronomiaren, kulturaren, bisita gidatuen eta abarren irudiak argitaratzen eta Aramaiok osagai ugari ditu bisitariak erakartzeko.

Udala bera ere fatxadak eta balkoiak edertzeko kanpainak egiten ari da, Aramaioko auzokideen gustu ona sarituz.

Horregatik guztiagatik, EAJ /PNV-k hurrengoa proposatzen dugu:

- 1.- Aramaioko udalak udalerriko eraikin publiko eta pribatuetako pintada guztiak garbitzea.
- 2.- Aramaiorekin lotutako gaien alegoriak edo muralak margotzea kiroldegia kanpoaldean eta bere perimetroan.
- 3.- Udalak konpromisoa hartzea lore eta lore-oheekin berdeguneak apaintzeko, Aramaiok merezi duen bezalako irudi ederra emateko.”

Iban Herrarte Aranak hitza hartu eta adierazten du, hori guztia lantzeko gai bat izan daitekeela, adostasun batetara ere heldu daitezkeela, baina plenoa ez dela tokia gaia landu eta planteatzeko. Batzordean planteatu eta lanketa egitea proposatzen du. Bestalde, kiroldegia dagokionez, aurreko batetan ere hitz egin zen horri buruz eta, gogorarazten du, hastear dauden obrak egin ondoren, hor ere egingo dela zerbait. Azkenik, lorategiei buruz, enpresa bat dagoela horretarako kontratatuta.

Pedro Elosegui González de Gamarra zinegotziak dio, pintadek zer diotenaren arabera, bakoitzak ez ikusia egiten duela edo joan eta garbitu egiten duela. Mozioak proposatzen duena dela asmoa hartzea.

Iban Herrarte Aranak gehitzen du, zer egin behar den edota non dagoen kokatuta, oso eragin ezberdinak izan ditzakeela, esaterako, udalarentzat gastu bat izango da, jabearen baiena beharko da, material edota tresna jakin baten beharra, kontratazio bat,... uste baino gehiago aztertu beharra dagoela.

Juan Antonio Peñak erantzuten dio proposamen bat dela. Bidea zein den edo nola egin ez dela aipatzen. Egin daitekeela asmoa hartu eta, ondoren, batzordean landu nola egin.

Pedro Elosegui gehitzen du dela ezta eperik jasotzen ere; egiten den bakarra dela asmoa hartu, irizpideak markatu. Udalbatzak mozioa onartzen duela edo ez, bera dela organo exekutiboa.

Santik dio mozioa onartu daitekeela baina, aurretik, batzordean hitz egin eta landu ondoren.

Alkateak adierazten du, batzordeko lanak direla, hor landu, aztertu eta udalbatzari proposatu. Baina mozioak nola dion eta zer dion ez dutela onartuko, esan daitekeela alderantzizko bide planteatu dutela.

Bozketa deitu eta Udalbatzak, EAJ/PNV udal taldeko bi zinegotzien aldeko bozkarekin eta EH Bildu udal taldeko zinegotzien aurkako 7 botorekin, ATZERA BOTA DU, EAJ/PNV udal taldeak aurkeztutako mozioa.



12. OSPITAL ZAHARRARI BURUZKO MOZIOA.

Juan Antonio Peña Orobengoa zinegotziak hitza hartu eta EAJ/PNV udal taldeak aurkeztutako mozioa azaltzen du. Mozioak horrela dio, hitzez hitz:

“Aramaioko EAJ-PNV taldeak mozio hau aurkezten du, “El Hospital” izena duen eraikin publikoak izan ditzakeen arriskugarritasun baldintzak direla eta. Hori dela eta, honako MOZIO hau aurkezten dugu Aramaioko Udaleko osoko bilkurak onar dezan.

MOZIOA

1. Udalaren jabetzako "el Hospital" eraikinaren aurriak deklaratzeko espedientea hastea, duela 20 urte Jenderik gabe eta egoera txarrean dago, eta arriskutsua izan daiteke pertsonentzat.
2. Espediente horren emaitzak aurri egoera deklaratzeko badu, udalak bota egin beharko du, eta, hala ez bada, egonkortasuna eta erabateko itxiera bermatuko die kanpoko pertsoneri.”

Gorka Astondoa Altunak jakinarazten du, gai hori lantzen ari direla. Udala aholkatzen duen aparejadorearekin bildu izan dela irtenbide bat aurkitu nahian. Hala ere, arazo asko daude eraikina dagoen kokalekuagatik: kamioiak ez dira heltzen, ohiko makinak ere ez, etxez inguratuta dago, bidea egitekotan desjabetzapean egin beharko dira, eta abar. Azterlan handia egin behar dela horren inguruan. Beharbada, leiho eta atea hormatu egin beharko dira, zerbait egin artean. Hirigintza batzordean sakon aztertu eta zer egin erabaki behar dela dio.

Pedro Elosegui González de Gamarra zinegotziak dio, beraiek eskatzen dutela aurri espedientea hastea, nork egin behar duen, zein organok, berdin dio. Kontua da osoko bilkurak erabaki dezala espedientea hastea eta gero berdin dio nola egin edo nork. Eskatzen dena da asmo bat hartzea.

Oihana Ameskoa Perez zinegotziak erantzuten du, edukian ados daudela guztiak, aldiz, bidea dela ezadostasun puntu nagusia.

Pedro Elosegui dio ados badaudela, onartu besterik ez dagoela. Mozioak ez duela bideez edo moduez hitz egiten, bakarrik “proposito” bat onartzea. Gero udalak ikusiko du zein bidetatik egin.

Alkateak adierazten du, ez duela horrela ikusten mozioa. Bere ustez, guztia batzordean landu beharra dago eta, lotuta dagoenean, udalbatzara ekarri proposamena haren erabakia lortzeko. Gauzak horrela, egokia izan daiteke erdi bideko bat proposatzea. Hau da, “kontraproposamen” bat egiten du:

Arrisku egoera ikusita, konpromisoa hartzea gaia batzordean lantzeko, epe motzean, eta guztion artean landu, irtenbide bat bilatu eta arriskuak kendu.

Bozketa deitu eta Udalbatzak, bertaratutako zinegotzi guztien aldeko botoarekin mozioaren kontraproposamena ONATZEN DU.

13. ARABAKO MENDIAK ASKE MOZIOA.

Alkateak aurkezten du, Arabako mendiak aske ekimenak proposatutako mozioa. Testuak horrela dio, hitzez hitz:

“ARABAKO MENDIAK ASKE!

2009. urtean, Eusko Legebiltzarrak Energia Eolikoaren Lurraldearen Arloko Plana (aurrerantzean, LAP) indargabetu zuen, Iturrietako Mendiak industrializatzeko asmoa bertan behera utziz, horiek Kontserbazio Bereziko Eredu (ES2110022) gisa babestuta daudelako eta hegazti nekrofagoak kudeatzeko baterako plana onartuta dagoelako.

Hala ere, 10 urte baino gehiago igaro ondoren, Eusko Jaurlaritzak, Eusko Jaurlaritzaren energia-agentziak – EEEK – (% 40) eta Iberdrolak (% 60) osatutako Aixear sarearen bidez, 2009an Energia Eolikoaren LAP indargabetzea ekarri zuten argudio guztiak alde batera utzita, zentral eolikoan 4 proiektu berri proposatu/inposatu ditu, bitxia bada ere, guztiak Araban:

- Azazeta (Arraia-Maeztu eta Bernedo): 40 MW-ko potentzia duten 8 aerosorgailu
- Iturrietako mendiak (Arraia-Maeztu): 75 MW-ko potentzia duten 15 aerosorgailu
- Arkamo (Erriberagoitia): 95 MW-ko potentzia duten 19 aerosorgailu
- Labraza (Oion): 40 MW-ko potentzia duten 8 aerosorgailu



Proiektu horiek, gainera, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen (128/2019 Dekretua, uztailaren 30ekoa), foru-, autonomia- eta Europako ingurumen-arloko araudi espezifiko ugariaren aurka ezartzen, eta hori guztia proposatutako kokalekuei legezko estaldura ematen dien Energia Eolikoaren Lurralde Plan Sektorialik gabe. Horretaz aparte, Aramaion ere 2 zentral eolikoren proiektuak ate joka daude.

Azken batean, zentzugabekeria horrek 2009. urtean agerian utzi eta blokeatutako akats berberei eusten die, 2002ko LAPa indargabetzean, baita Arabako Foru Aldundiak natura-ingurunea, biodibertsitatea eta paisaiak babesteko garatutako estrategia eta politikak bertan behera uzten ditu ere, eta, batez ere, ondorio konponezinak eta oso kaltegarriak dakartza gure natura-ondarean, hau da:

- Gure mendi komunalen pribatizazioa, haien kudeaketa komunitarioa biziraupenaren giltzarrietako bat izan baita. Iberdrola bezalako enpresa pribatu batek ezin ditu mendi publikoak bahitu, 2020an 3.610,7 milioi euroko mozkin garbia izanez.
- Ingurumen-balio handiko naturaguneak industrializatzea. Kontuan hartu behar dira azpiegitura horiek eraikitzearekin eta mantentzearekin lotutako trafiko astuna, horien funtzionamenduaren ondoriozko olio- isurketak, baia horiei lotutako azpiegituren inpaktu larria ere (pistak, ebakuazio-linea elektrikoak, azpiestazioak, etab.)
- Paisaiaren inpaktu izugarria. Haize-sorgailuek 200 metroko altuera dute, Elgea mendilerrokoak baino hiru aldiz altuagoak dira, edo Gasteizko Salburuako dorre altuenak baino altuagoak. Bilboko Iberdrola dorreak 165 metroko altuera du.
- Inpaktu akustikoa. Erroten inguruko eremuetan, zaratak eta bibrazioek osasun publikoari kalte larria eragiten diote.
- Biodibertsitatearen galera. Errotek eta lotutako azpiegiturek biodibertsitatearen galera handia dakarte gure mendietan, batez ere, habitatak galdu, zatitu eta degradatu direlako, hainbat faktorek eraginda, hala nola, lurzoru naturalak okupatu eta zigilatzeak, sistema naturalak suntsitu eta aldatzeak, espezie aloktonoak inbaditzeak, baliabideen ustiapen ez-jasangarriak edo kutsadurak.
- Eragindako eremuek sare hidrológicoan (akuiferoak, errekek, iturriak, etab.) duten eragina.

Horregatik guztiagatik, zuen erakundeari ESKATZEN DIOGU manifestu hau babes dezala, eta administrazio eskudunei honako hauek eskatzeko:

- Ingurumen-balio handiko eta -hauskortasuneko mendi-eremuak energia-ekoizpeneko era guztietako zentralak ezartzeko bazterketa-eremu izendatzea, premiaz.
- Abian dauden proiektuak berehala geldiaraztea, bitxia bada ere, guztiak Araban kokatuak.
- Leku antropizatuagoak, irisgarriagoak eta ekologiaren eta paisaiaren ikuspegitik inpaktu txikiagoa dutenak lehenestea.
- Zentral eolikoak eremu antropizatueta eta ekoizpen-zentroetatik hurbil kokatzea.

Energia berriztagarriek biodibertsitatea babestearen aliatuak izan behar dute. Trantsizio energetikoak eta biodibertsitateak batera joan behar dute, eta, beraz, lehenengoa bigarrena sakrifikatuz garatzea helburu arriskutsua eta arduragabea da.

Hori dela eta Aramaioko eragile ezberdinek, Orixol Mendizale Elkarteak, Gazte Asanblada, Ehiza Elkarteak, ... Aramaioko Udalarri eskatzen diogu bat egiteko manifestu honekin eta urriaren 16rako antolatzen ari garen Jarindora mendi martxarekin."

Pedro Elosegui González de Gamarra zinegotziak hitza hartu eta aurkezten du mozioaren zuzenketa proposamena. Hitzez hitz, horrela dio:

"EAJ-PNV udal taldeak, ARABAKO MENDIAK ASKE izeneko mozioari buruz aurkezten duen ordeztoko-zuzenketa.

1. Aramaioko udalak bat egiten du Energia Berriztagarrien Lurralde Arloko Planarekin.
2. Aramaioko udalak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio Energia Berriztagarrien Lurralde Arloko Plana ahalik eta adostasun politiko eta sozial handienarekin landu dadila.
3. Aramaioko udalak Arabako Foru Aldundiari eskatzen dio aholkua eman diezaiela tokiko entitateei energia berriztagarrien proiektuak instalatzeko behar diren izapide guztietan, eta bereziki gaitasun txikiena dutenei, hala eskatuz gero.
4. Aramaioko udalak uste du energia berriztagarrien hedapena ezinbestekoa dela Klima Aldaketaren eta Trantsizio Energetikoaren Legearen helburuak betetzeko, eta AFari eskatzen dio zaindu dezala energia berriztagarriak nekazaritza eta abeltzaintzako jarduerekin, lurralde-orekarekin, biodibertsitatearekin eta paisaiarekin bateragarriak izatea."



Alkateak 5 minutuko etenaldia iragartzen du, EH Bildu udal taldekoek aurkeztu berri den mozioaren zuzenketa aztertzeko.

Etenaldiaren ondoren, alkateak adierazten du, ez dutela Energia Berriztagarrien Lurralde Arloko Plana ezagutzen, ez dakitela horren nondik-norakoak eta, beraz, ez dela egokia horri buruz eztabaidatzea.

Pedro Elosegui jakinarazten du, Plan Mugarri izena duela eta, gutxi gorabehera, hamar urte badirela Batzar Nagusietan eztabaidatu zela.

Iban Herrarte Arana zinegotziak hitza hartu eta gehitzen du, kontuan hartu beharra dagoela ere, PTSa ere eten eta atzera bota zela. Konpromisoa ere hartu zela hori lantzeko, baina oraindik ez dela ezer egin. Kanpotik jakin ahal izan denez, ba zen plan bat 5 gunetan haize-errotak jartzeko ere, ondoren esan dute bertan behera gelditu dela eta, soilik, birekin jarraitzen duela aurrera. Azkenean, kanpotik enteratutako gauzak eta ezer zehatzik ez. Zuzenketa testuaren bigarren puntuarekin adostasun bat izan dezaketela baina, orohar, ez dutela zuzenketa horrekin bat egiten.

Alkateak, gaineratzen du, Arabako mendiak aske eragileak proposatutakoarekin bat egiten dutela eta ados daudela horrekin. Besterik gabe, bozketa deitzen du, lehenengo, zuzenketari buruzko bozketa egiten da eta Udalbatzak, EAJ/PNV udal taldeko bi zinegotzien aldeko bozkarekin eta EH Bildu udal taldeko zinegotzien aurkako 7 botorekin, ATZERA BOTA DU, EAJ/PNV udal taldeak aurkeztutako mozioaren zuzenketa.

Ondoren, mozioari buruzko bozketa egiten da eta Udalbatzak, EAJ/PNV udal taldeko bi zinegotzien aurkako bozkarekin eta EH Bildu udal taldeko zinegotzien aldeko 7 botorekin, Arabako mendiak aske izeneko mozioa ONARTU ETA BERE EGITEN DU.

14. GALDERAK ETA ESKAERAK.

1. Pedro Elosegui González de Gamarrak dio, aurreko bilkuran udalbatzaren funtzionamendurako erregelamendua egiteari buruzko oniritzia eman zela. Hori garatzen laguntzeko, Batzar Nagusietakoa bidaliko duela, hainbat gaietan eredu bezala hartua izan daitekeelakoan eta, aldi berean, dokumentu horren idazketa bideratzeko.

2. Bestalde, adierazten du, enteratu direla "limitadoan" zenbait mugarriren aldaketa egin nahian omen dabilela Bizkaiko Foru Aldundia eta horri buruz zer dagoen galdetzen du.

Alkateak jakinarazten du, horri buruzko lehenengoko notizia jaso zela Arabako Foru Aldundiari esker. Mugarriketa egiteko deialdia egin omen zen eta Aramaioko Udalari ez zitzaion jakinarazi. Orduan, Arabako Foru Aldundiaren izenean bertaratutako teknikoek, esan zuten udala jakinaren gainean jartzea beharrezkoa zela eta prozesuak ezin zuela horrela aurrera segi, Otxandioko jabetzako den mendi publiko baten mugarriketa izan arren, Aramaioko Udalaren bide publiko bat tartean dagoelako. Hartara, Bizkaiko Foru Aldundiak beste deialdi bat egin zuen mugarriketarako, publikatu eta jakinarazi, bai Aramaioko Udalari eta, baita ere, eragindako lursailen jabeei.

Bihar, urriak 1, izango da mugarriketa ekitaldia. Santiago Balantzategi Beitia zinegotzia joango da udalaren izen eta ordezkari izan. Zinegotziak azaltzen du, ekitaldi horretara hainbat alegazio eramango dituela, aktan jasak izan daitezkeen. Laburbilduz: terminologikoa esan daitekeena lehenik, hainbat lursail Otxandioko udalaren lursailetan daudela jarri baitute, baina azpimarratu beharra dago, "limitaduan" kokatzen direla eta, horrenbestez, ez direla Otxandioko udalarenak; bigarrenez, bizpahiru eraikin "limitaduan" kokatu dituzte katastroan aldaketa eginda gero, horiek, ez dira inoiz "limitaduen" parte izan.

3. Azken eskaera bat egiten du Pedro Elosegui zinegotziak. Galdetzen du ea posible den hilero txosten txiki bat jasotzea udal aurrekontuaren martxari buruz, nola dauden gastuak, zein egoeratan partidak eta abar.

Alkateak baietz dio. Ez dagoela arazorik. Aurrekontuaren exekuzio egoeraren txostena bidaliko dela hilero.

Azkenik, eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, alkateak bukatutzat eman du osoko bilkura hau, goiburuan adierazitako egunean eta orduan, eta nik Aramaioko bitarteko idazkari-kontuhartzaileak, hala ziurtatzen dut, alkatearen oniritziarekin.